
Egun Bereziak

2015
2016

Ez ditzagun ito



Geure aztarna ekologikoak planetako baliabideak agortzen ditu eta gizateria garatzeko aukerak ere murrizten ditu.

UTZI ZURE AZTARNA
POBREZIAREN AURKA
Zurekin, bat gehiago

sed Solidaridad | Educación | Desarrollo
PROYDE
25 PROYDE PROEGA
PROCLADE FUNDACIÓN
fundación proideba
PROIDE
EDIFICANDO Comunidad de Nazaret
PROCLADE YANAPAY

HAUR HEZKUNTZA

"ZUZENA DA, ALA EZ?"

Helburuak

- Ongi elikatzeak duen garrantziaz jabetzea.
- Ingurumenari negatiboki eragiten dioten kausa batzuez ohartzea.
- Gure inguru hurbileko alderdiak balioestea.

Edukiak

- Elikadura-burujabetza.
- Ingurumena.
- Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa: etxebizitza izateko eskubidea eta hezkuntzarako eskubidea.

Jardueren azalpena

1. jarduera:

Irakasleak ondoren azaltzen diren irudiak hartuko ditu, eta gelan erakutsiko ditu. Argazki bakoitza erakusterakoan, galdera bat egingo du. Ikasleak irudiek beti zentzu positiboa ez dutela jabe daitezen lortu nahi da. Hauek dira proposatzen diren irudiak eta galderak:


"Zuzen ari da jokatzen haur hau?"



“Igeri egin daiteke ibai honetan? Zergatik?”



“Zure ustez, zer gertatzen zaio haur honi?”



“Zergatik ez du eskolara joan nahi haur honek?”



“Zure ustez, zergatik bizi da haur hau etxe horretan, eta zergatik ez du oinetakorik?”




“Zergatik jaten du soilik arroza haur honek? Zergatik ez du sardexkarik erabiltzen?”




2. jarduera

Irudiei buruz hitz egin ondoren, aurkako ideia islatzen duten argazkiak erakutsiko dizkiegu, eta bien arteko lotura egiteko eskatuko diegu. Haurrek argazkien arteko lotura aurkitu beharko dute, eta bikoteak osatu beharko dituzte.













Amaitzeko, ikasle bakoitzak marrazki bat egingo du, gehien gustatu zaion irudia oinarri hartuta.

Materiala

Jarduera hau egiteko, argazki inprimatuak eta orriak behar dira, ikasleak banaka marrazkiak egiteko.

Denboralizazioa

Ordubete iraungo du saioak: hasieran (40 minutu), argazkiei buruz hitz egingo da ikasgelan, eta geratzen den denboran (20 minutu), marrazkia egingo dute banaka.

LEHEN HEZKUNTZA - HASIERAKO ETA ERDIKO ZIKLOAK

"ALONSO ETA MALETA MAGIKOA"

Helburuak

- Guatemalako errealitatearen zenbait alderdi ezagutzea.
- Baliabideen gehiegizko ustiapenak ingurumenean eragindako ondorio negatiboez jabetzea.
- Ibaiak zerk kutsatzen dituen ezagutzea.
- Ingurune hurbila balioestea.
- Ingurune hurbila eta oro har mundua zaintzeko sentiberatasuna erakustea.

Edukiak

- Guatemalako errealitatea.
- Ingurumenaren gehiegizko ustiapenaren ondorioak.
- Bi herrialderen arteko desoreka.
- Haurraren Eskubideak.

1. jarduera

Gelan, "Alonso eta maleta magikoa" ipuina irakurriko da, eta, ondoren, laburpena egingo da, argumentuaz jabetzeko. Era berean, ipuinaren azken mezua zein den ondorioztatzen saiatuko dira guztien artean. Irakasleak honako galdera hauek egin ditzake:

Lehen ziklorako

- Zein da ipuin honek transmititu nahi digun mezua?
- Alonsok dituen baldintza beretan bizi zarela uste duzu?
- Alonso haur zoriontsua dela uste duzu? Zergatik?

Erdi ziklorako

- Zein da ipuin honek transmititu nahi digun mezua?
- Badakizu Guatemala non dagoen?
- Alonsok dituen baldintza beretan bizi zarela uste duzu?
- Alonso haur zoriontsua dela uste duzu? Zergatik?
- Ezagutzen dituzu Haurraren Eskubideak? Alonsoren herrialdean eskubide horiek errespetatzen direla uste duzu?

2. jarduera

Ipuinari buruz hitz egin ondoren eta ingurumenaren gehiegizko ustiapenaren ondorioei buruz edota Haurraren Eskubideen zaurgarritasunari buruz gogoeta egin ondoren, sendotzeko jarduera bat garatuko da.

Lehen Ziklorako:

Ipuina antzeztuko da, ipuineko protagonistak kontuan hartuta. Antzezpen xume eta labur bat egingo da, haurrek alderdi garrantzitsuenak barnera ditzaten. Ez da beharrezkoa gidoi bat egitea; irakasleak istorioa azalduko du, eta ikasleek (pertsonaia bat esleituta izango dute) antzeztu egingo dute.

Erdiko ziklorako:

Guztien artean eta irakaslearen laguntzarekin, Haurraren Eskubideak zeintzuk diren gogoratuko dute. Ondoren, istorioan urratuta ageri diren eskubideak zeintzuk diren ondorioztatzen saiatuko dira. Era berean, ingurumeneko zein alderdi kaltetu diren aztertu beharko dute ikasleek.

Denboralizazioa

Bi jarduera horietako bakoitzak 45 minutu iraungo du, ipuinari eta ondorengo galderei buruzko gogoeta egin behar baita. Bigarren jarduera beste saio batean egingo da, eta lehenengoan landutako gaiak gogorarazteko eta sendotzeko erabiliko da.

Materiala

Alonso eta maleta magikoa

Alonsoren historia da hau. Guatemala izeneko herrialdean bizi da familiarekin, etxe apal batean, goi mendietan.

Alonsoren gurasoek ez dute diru askorik. Haien etxean ez dago ez sukalderik, ez aterik, ez leihorik. Urtero, aita kostaldera joaten da lanera hilabete batzuetarako, diru apur bat irabazi ahal izateko. Gainerako hilabeteetan etxe aurreko baratzean egiten du lan, frutak eta barazkiak landatzen. Alonsok gogoko du aitari laguntzea, baina asko kostatzen zaio, esku bakarra mugi dezakeelako. Gaixotasun baten ondorioz, esku bat ezin du mugitu, eta ezin du erabili.

Etxe txiki batean bizi diren arren, Alonso zoriontsua da. Goizero, amak gosaria prestatu bitartean, ontziak hartu, eta ibaira joaten da urez betetzera, familiako denak garbi daitezen. Eskolara iristeko, hiru orduz joaten da Alonso harriz jositako bide batean zehar; baina zoriontsu da, auzokoekin eta lagunekin topo egiten duelako beti, eta haiekin apur bat hitz egiteko aukera izaten duelako.

Larunbata da gaur, eta ondoko herrian, Colotenangon, azoka-eguna dute. Alonsok, anaia txikiarekin batera, asteburuan jango dituzten frutak eta barazkiak erosteko diru apur da darama. Egun alaia da, azoka jendez beteta dago; koloretako oihalei, fruituei eta abarri begira eta barazki fresko bila dabil jendea. Oinetakoak, zapiak, ogia, eta abar ere saltzen dituzte. Behar duzun guztia!

Frutak eta barazkiak erositakoan, etxerako bidea hartu dute, mendian gorantz. Astoen laguntzaz eskorgak beteta daramatzaten gizon ugarirekin topo egin dute bidean; azokara doaz saltzera. Alonsok

agurtu egin ditu, eta bere bideari jarraitu dio. Etxera iritsi denean, ama janaria prestatzen ari da, pozpozik. Janaria prestatu bitartean, Alonso anaiarekin eta txakurtxoarekin jolastu da.

Azkenean, janaria prest dagoela esan die amak. Ohiko menua da: babarrunak, barazkiak eta arrautzak. Ez dute ia inoiz haragirik jaten, oso garestia baita, eta ez dute ordaintzeko dirurik. Izozkirik eta pastelik ere ez dute jaten. Horien ordez, baratzean lantzen dituzten frutak jaten dituzte. Alonsori izugarri gustatzen zaizkio laranjak! Zoriontsua da, baina eskolako beste haur guztiak bezalakoa izan nahiko luke. Ezin du ezkerreko eskua mugitu, eta, batzuetan, triste jartzen da, eta lotsatu egiten da. Eskolan, haur guztiek laguntzen diote, eta berarekin jolas egin nahi dute, lagun ona delako. Jolas-orduan, baloiarekin jolasten dira, eta Alonsok... bi gol sartu ditu gaur! Hala ere, beste egun batzuetan, triste dagoenean, jolastokian dagoen eserlekuan esertzen da, eta irakaslearekin hitz egiten du. Oso bromazalea da irakaslea, eta beti lortzen du Alonsori irribarre eginaraztea; eta Alonso berriro poztu egiten da.

Alonsok 16 urte ditu, eta egun berezia da gaur. Lagun talde bat iritsi da eskolara irakasleari laguntzera, pika batzuk eraikitzera eta geletan argia jartzera. Alonso oso pozik dago, orain bazkaldu aurretik eskuak garbitu ahal izango baititu! Lagun horiek egun batzuk igaroko dituzte ikasleekin, eta haurrek ongi pasatzeko jolasak eta jarduerak prestatuko dituzte: antzerkia, musika, lorratzen jolasak... Oso jende atsegina da, eta eskuzabala! Oso pozik daude denak, eta haurrek ez dute nahi haiek joaterik.

Gaur, pikak nola eraikitzen dituzten begira zegoela, gizon bat gerturatu zaio Alonsori, eta hauxe esan dio:

— Kaixo, mutik, lagundu nahi?

— Asko gustatuko litzaidake, baina ezin dut esku hau mugitu.

Gizona pentsakor gerturatu da, eta zera galdetu dio:

— Orduan, ezin diezu zure gurasoei etxean lagundu?

— Ez asko. Batzuetan azokara joaten naiz erostera, baina ezin dut lurra landu –erantzun dio triste.

Alonsok interesa piztu du gizon harengan, eta hauxe galdetu dio:

— Eta, beraz, institutua amaitzen duzunean ikasten jarraitzea gustatuko litzaizuke?

Irribarre handi batekin erantzun dio:

— Irakasle ona izatea gustatuko litzaidake… Irakatsi egin nahi dut… Baina ez dut dirurik unibertsitatera joateko –aurpegi tristea jarri zaio berriro.

Gizona pentsakor gelditu da. Joan egin da, eta handik minutu batzuetara itzuli da. Alonsok ez du ulertzen zer gertatzen ari den, oso arraroa da guztia. Orduan, gizonak galdetu dio:

— Ikastea eta irakasle on bat izatea gustatuko litzaizuke benetan?

Alonsok berriro erantzun dio:

— Jakina, horixe da nire ilusioa.

— Orduan, erronka bat proposatuko dizut. Saiatuko zarela esaten badidazu, zure ametsa betetzen lagunduko dizut. Probatu nahi duzu?

Alonso apur bat galduta dabil, eta ez du ezer ulertzen; baina hauxe erantzun dio:

— Horixe! Zer egin behar dut?

— Gure maleta magikoak gordeta duen mezua aurkitu behar duzu.

— Mezu bat? Maleta magikoa? –Alonsok ez du ezer ulertzen.

— Bai –esan dio gizonak. –Guatemalan aurkitutako objektuez betetako maleta bat ekarriko dut bihar. Objektu bakoitzak zer esan nahi duen asmatzen baduzu, irakasle izateko aukera izango duzu. Zer deritzozu? –irribarre egin du gizonak.

— Ongi —esan du Alonsok, harrituta baina pozik.

Hurrengo egunean, gizon arraro horrek maleta ekarri du. Alonsok, jakin-min handiz, zer gordeta duen begiratu du. Guztira, zazpi objektu daude: josteko hariz egindako panpina bat, piramide maia bat, ibaiko maskor batzuk, urez betetako ontzi bat, lurrez betetako poltsatxo bat, animalien argazki bat eta txirula bat. Jolastokiko eserlekuaren gainean jarri ditu Alonsok objektu guztiak. Orduan, gizonak esan dio:

— Hemen dituzu objektu guztiak. Ea asmatzen duzun zerk lotzen dituen. Bihar azalduko didazu.

Gizona joan egin da. Alonso denbora luzez egon da zazpi objektuei begira-begira; ez daki nondik hasi. Objektu guztiak bere herrialdekoak dira, Guatemalakoak, baina zer lotura dute elkarrekin?

Objektuei begira igaro du arratsalde osoa. Oso nekatuta dago; ohean etzan da, begiak itxi ditu, eta oso amets berezia egin du. Argi batek Guatemalatik bidaia magiko bat egitera eraman du… Inoiz izan ez den lekuetara eraman du ametsak!

Haur batzuk ikusi ditu lehendabizi. Oso pobreak dira, eta hariz eta oihalez egindako panpinen eta animaliatxoen fabrika baten aurrean daude. Alonsok pentsatu du: zergatik daude haur hauek fabrika batean? Eskolan egon behar lukete!

Ondoren, ia suntsituta dagoen piramide maia zahar batekin topo egin du. Gizon batzuk berriro eraikintzen saiatzen ari dira, baina ezinean dabiltza. Alonsok bere buruari galdetu dio: nola da posible gure kultura identifikatzen duten piramide zoragarri horiek etengabe behea jotzea?

Gero, kolore marroiko ibai luze-luze bat ikusi du. Ibaiertzean, milaka maskor daude lokatz, lur eta zikinkeria artean nahasita. Alonsok bere buruari galdetu dio: zergatik dago horren zikina ibai hau?

Gogoetarako asti gehiagorik gabe, gidari duen argiak bide batetik eraman du Alonso. Bide horretan, haur bat agertu zaio, ur marroiz betetako botila bat eskuan duela. Haurrak galdetu dio:

— Kaixo, egarri zara?

Eta, kolore marroiko ur botila erakutsiz, esan dio:

— Iturrikoa da, oraintxe hartu dut.

— Ez ezazu ur hori edan! Ez da ona; kolore marroia du– erantzun dio Alonsok.

Alonsok ez du ezer ulertzen, eta haurrak eskainitako urari uko egin dio. Ibiltzen jarraitu du. Triste jarri du ikusitako guztiak.

Zelai berde batera iritsi da, animalia ugariko bailara batera; irribarre egin du azkenik, animalia guztiak pozik ikusi dituelako. Baina, bat-batean, begi itxi-ireki batean, animaliak desagertu egin dira. Alonsok ez du ulertzen zer gertatu den. Ez daki non hasi animalia bila. Ezin du bideari jarraitu besterik egin, eta abiatu denean, lurrez betetako poltsatxo bat daraman gizon batekin topo egin du. Alonsok, kezkatuta, animaliarik ikusi duen galdetu dio gizonari. Gizonak erantzun dio:

— Ez dakizu animalia guztiak desagertu direla? Jada ez dago naturan haientzako lekurik, hondatuta dago ingurumena.

Alonso, gizon hark erantzuten badakiela ikusita, egoeraz baliatu da, eta galdetu dio:

— Eta haurrak zergatik ez dira eskolara joaten? Eta ibaiak zergatik ez daude garbi? Eta edateko ura zergatik ez da gardena?

Gizona erantzuten saiatu da:

— Etorkizunerako bidaia egiten ari zara; ingurumena ez zaintzeak dakartzan ondorioak ezagutuko dituzu horrela.

Alonso aho zabalik gelditu da, triste dago. Baina orain ulertu du ikusitako guztia. Gizon hark, lurrez betetako poltsatxoa zeramanak, hauxe esan dio:

— Oraindik lur garbi apur bat gelditzen da, kutsatu gabe dagoen lur apur bat. Nahi baduzu, apur bat emango dizut hazi hauekin batera. Ahaleginarekin, baratze txiki bat landatu eta fruituren bat edo barazkiren bat erein ahal izango duzu.

Gogo onez onartu du proposamena Alonsok. Pozik dago galdera haien guztien erantzuna aurkitu duelako; ibiltzen jarraitu du, eta basoak eta ibaiak berriro garbi izateko egin behar duen guztiari buruz pentsatu du.

Natura babesteko irtenbideei buruz pentsatzen ari zen, txirula baten melodia entzun duenean; melodia behin eta berriz errepikatzen da. Bat-batean, esnatu egin da. Amets bat besterik ez zen guztia! Irribarre egin du: maleta magikoko objektu guztiei zentzua aurkitu die. Badaki gauzak aldatzeko zer egin behar duen. Eta, are garrantzitsuago, orain irakasle izateko aukera izango du, herriko haurrei beren herrialdeko kultura eta natura zaintzen erakusteko.

LEHEN HEZKUNTZA - GOI ZIKLOA

"Laia eta Alonso"

Helburuak

- Herrialde batzuetan Haurraren Eskubideak urratzeko arriskua handiagoa dela jabetzea.
- Ingurumenaren gehiegizko ustiapenaren aurrean kritikoak izatea.
- Irtenbideak bilatzea inguru hurbilean, natura gehiago honda ez dadin.
- Euren eskubideak urratuta ikusi dituzten pertsonekiko sentiberatasuna eta enpatia adieraztea.

Edukiak:

- Haurraren Eskubideak
- Energia eta kontsumoa: garraio publikoa aukera gisa.
- Uraren zikloa: kontsumoa eta arazte-prozesua.
- Osasuna: elikadura-ohiturak eta higienea.
- Enpatia eta lankidetza

1. jarduera

Bi zati ditu jarduerak. Lehenengo, istorioa irakurriko dugu ikasgelan. Irakurgaian aurrera egin ahala, Haurraren Eskubideekin edota arazo ekologikoekin lotutako galderak egingo ditu irakasleak. Gero, irakasleak taldeka banatuko ditu ikasleak. Tarte batean, talde bakoitzak irakurgaiak iradokitako arazo bati buruz gogoeta egingo du, eta arazo hori konpontzeko irtenbideak bilatuko dituzte.

2. jarduera

Jarduera hau aurreko saioa sendotzeko erabiliko da. Aurreko saioko lantaldeek poster bat egingo dute oraingoan, aztertu duten arazoa azaltzeko, eta, Interneten laguntzaz, informazioa eta argazkiak bilatuko dituzte.

Denboralizazioa

Lehenengo jarduerak 30 minitu iraungo du, eta ordu eta erdi hartuko ditugu bigarren jarduera egiteko

Materiala

Laia eta Alonso

Laiak begi zorrotza du, eta konturatu da ez duela ezer esan Jason izeneko gelako mutiko batek, Hego Amerikako herrialde batean jaiotakoak. Duela hilabete eskolara iritsi zenetik, nahiko triste dabil. Eskolatik irtendakoan zer egiten duen galdetu dio irakasleak, eta Jasonek hauxe erantzun dio:

— Nik ezin dut ezer egin. Ez dugu dirurik, ez kontsoletarako, ez kirola egiteko.

Jasonen familia oso apala da. Ama eta anai-arrebak bere jaioterrian ditu, Guatemalan, eta bera aitarekin etorri zen Bartzelonara. Europara etorri eta familia mantentzeko diru gehiago irabazi nahi zuten, baina Bartzelonan uste baino zailagoa egiten ari zaie bizimodua; horregatik, gauzek hobera egiten ez badute, Guatemalara itzuli beharko dute.

Jolas-ordua iritsi da, eta Jasonen bila hasi da Laia, harekin hitz egiteko. Haren familiari buruz eta Guatemala izeneko herrialde arraro horri buruz galdetu nahi dio. Jason pozik dago, hitz egiteko aukera duelako. Mapa bat hartu du, eta bere herrialdea non dagoen eta han bizimodua nolakoa den azaldu dizkio.

Jasonek anaia zaharrago bat du, 12 urtekoa; Alonso du izena. Alonso Guatemalan gelditu zen, han lana duelako. Egunean 12 orduz lan egiten badu ere, hark lortzen duen diruari esker jaten du familiak. Jasonek eta Laiak hizketan igaro dute jolas-ordu osoa, eta Laiak gauza asko ikasi ditu. Bi herrialdeen artean desberdintasun ugari daudela jabetu da, eta, etxera heldu denean, gurasoekin hitz egitea erabaki du.

1. galdera: zer egiten duzue beste herrialde batzuetatik eskolara datozen haurrak ongi etorriak senti daitezen? (Berdintasunerako eskubidea, arraza, erlijioa edota herritartasuna kontuan hartu gabe).

Jasonekin izandako elkarrizketan, Laia konturatu da Guatemalan haur guztiek ez dituztela bainuontzia eta dutxatzeko ura. Alonsok, Jasonen anaiak, ordubetez ibili behar du ontziak urez betetzeko, bere etxean ez baitago iturririk. Gainera, ur hori marroia da, ibaia kutsatuta dagoelako.

2. galdera: badakizue nondik datorren egunero erabiltzen dugun ura? Haur guztiek etxean ura eduki dezaketela uste duzue? Berdina al da ura izatea edota edateko ura izatea?

Laia beste gauza batez ere jabetu da: berak betaurrekoak ditu, eta hortzak zuzentzeko aparatuak ditu ahoan. Aldiz, Alonsori hiru hortz falta zaizkio, eta ezin du sendagilearengana joan, dirurik ez duelako.

3. galdera: haur guztiek sendagilearengana joateko aukera dutela uste duzue? Eta zer gertatzen da dirurik ez dutenekin? (Elikadura, etxebizitza eta osasun-arreta egokiak izateko eskubidea)

Alonsok Guatemalan duen bizimoduaz gehiago ikertuz, herrialde horretan paisaia oso polita dela eta animaliaz eta landarez josita dagoela jakin du Laiak. Alonsok, Jasonen anaiak, aitaren zuhaitzetako fruituak jaten ditu.

4. galdera: badakizue nondik datozen jaten ditugun elikagaiak? Guztiak ekoitzi egiten direla uste duzue, edota gure etxe ondoko zelaietan biltzen direla?

Guatemalako eskolei buruzko gauzak ere ikasi ditu Laiak. Han, ikasgeletan, aulkiak eta arbel bat soilik daude, eta Bartzelonan, berriz, idazmahaiak, margoak, leihoak, ateak, berogailua eta abar dituzte ikasgelek. Laiak bost minutu egiten ditu oinez eskolara iristeko; Alonsok, aldiz, ordubete.

5. galdera: haur guztiek al dute eskola bat beren etxe ondoan? Eta, urrun badago, zer egiten dute garaiz iristeko? (Doako hezkuntzarako eta ongi pasatzeko eta jolasteko eskubidea)

Janariei dagokienez ere, ugariak dira desberdintasunak. Alonsok hilabete darama arrainik eta haragirik jan gabe, oso garestiak direlako. Guatemalan, beti gauza bera jaten dute gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan: babarrunak eta barazkiak. Laiaren dieta oso bestelakoa da; egunero, askotariko gauzak jaten ditu, eta, gainera, etxean askaltzen du, eskolako lanak egiten dituen bitartean. Jasonek esan dio Alonsok etxean eskolako lanik ezin duela egin, argindarrik ez dutelako. Eskolako lanak egin ondoren, Laiak bere jostailuekin, kontsolarekin, kromoekin edo mozorroekin jolas egiten du. Alonsok ez du jostailurik, baina sokasaltoka, marinba edo txirula jotzen edota abesten igarotzen du denbora.

5. galdera: zergatik daude jostailurik ez duten haurrak? Eta zer egiten dute etxera iristen direnean? (Doako hezkuntzarako eta ongi pasatzeko eta jolasteko eskubidea)

Alonsoren bizitzaren eta Laiarenaren artean dauden desberdintasunei buruz luzaro hitz egin ondoren, Laia pentsakor gelditu da. Oraintxe afaldu du, platerak jaso ditu, eta hortzak garbitu ditu. Hori guztia egin ondoren, gurasoengana gerturatu da; telebista ikusten ari dira gurasoak, eta hauxe esan die:

—Ama, aita, mila esker hain ongi zaindu eta horren zoriontsu sentiarazi nauzuelako. Zorionekoa naiz, dudan guztia dudalako.

Besarkada handi bat eman die, eta pozik joan da lotara, hurrengo egunean Jason askaltzera eta jolastera gonbidatuko duela pentsatuz; dituen jostailu guztiak erakutsi nahi dizkio.

6. galdera: solidarioak zarete zuen lagunekin? Guztiei laguntzen diezue edota soilik gehien komeni zaizkizuenei? (Guztien arteko solidaritatea, adiskidetasuna eta justizia sustatzen dituen hezkuntza jasotzeko eskubidea).

BIGARREN HEZKUNTZA

Helburuak

- Ekoizpen-sistema globalizatua ezagutzea.
- Gure kontsumoak ingurumenean duen eraginari buruz gogoeta egitea.
- Industria-ekoizpenaren sistema horretan, haurren zer eskubide dauden zalantzan egiaztatzea.

Edukiak


- Industria-ekoizpenaren prozesuko faseak.
- Pobretutako herrialdeen ustiapena.
- Kontsumo arduratsua.
- Ingurumen-inpaktua.

Jarduera

La historia de las cosas dokumentala ikustea proposatzen da. Ekoizpen-prozesuaren faseak eta fase bakoitzean ingurumenean nahiz gizartean sortzen diren ondorioak azaltzen ditu dokumentalak. Ondoren, debatea egingo da gelan, taldean lantzeko planteatutako galderak oinarri hartuta. Lehenengo jarduera horren ondoren, La historia de las soluciones dokumentala ikusiko da. 9 minutuko dokumental horrek sistema horri aurre egiteko izan daitezkeen proposamenak eta irtenbideak erakutsiko dizkie ikasleei. Dokumentala ikusi ondoren, taldean lan bat egitea proposatzen da, paradigma aldatzeko norabidean ikasleek konpromiso pertsonalak hartzeko gogoeta egin dezaten.

Bideoa

- Dokumentala, 20 min., Estatu Batuak, 2009.
- Errealizazioa: Storyofstuffproject
- Produkzioa: Storyofstuffproject
- Hizkuntza: gaztelaniara bikoiztuta



Laburpena

Gure bizitzan ditugun gauza guztiek komunitateei eragiten diete, ateratzen diren unetik saldu eta erabili arte, horretaz jabetzen ez garen arren. La Historia de las Cosas DVD entretenigarria eta dinamikoa da, eta datuz josita dago. Gure ekoizpen- eta kontsumo-ereduen alderdi iluna deskribatzen du 20 minutuan. La Historia de las Cosas dokumentalak ingurumen- eta gizarte-arazo ugariren artean dagoen lotura azaltzen du, eta bat egiteko deia egiten digu, bidezkoagoa izango den mundu iraunkorrago bat sor dezagun

https://www.youtube.com/watch?v=ykfp1WvVqAY

Gogoetarako

Irakasleak honako galdera hauek egingo dizkie ikasleei, gelan debatea sortzeko:

1. [10. artikulua] Haurrek eta gurasoek edozein herrialdetatik irteteko edo beren herrialdean sartzeko eskubidea dute, familia batzeko edo guraso eta seme-alaben arteko harremanak mantentzeko bada. Ingurumenaren higadurak eta ekoizpen-ereduak, egunero, 200.000 lagun beren etxea uztera eta bizimodua aurrera ateratzeko hiri miserableetara lekualdatzera behartzen dituzte. Zer iritzi duzu sistema horretaz?
2. [17. artikulua] Gizarteko hedabideak oso garrantzitsuak dira, haurraren ongizate morala, herrien arteko ezagutza eta elkar aditzea eta haurraren jatorrizko kulturaren errespetua babesten dituen informazioa zabaltzeko. Halaber, estatuarena da haurra bere ongizatearen aurka doazen informazio eta material guztietatik babesteko ardura, eta horien aurka neurriak hartzeko betebeharra du. Estatu Batuetan, herritarrek gauzak erosiz zoriontsuago izan daitekeela egiaztatzen duten 3.000 iragarki ikusten dituzte batez beste egunean. Telebistako iragarkiek haurrengan zer eragin dutela uste duzu? Horiek nolabait mugatu egin beharko liratekeela uste duzu?
3. [24. artikulua] Umeek ahalik eta osasun mailarik onena izateko eta medikuntza- eta errehabilitazio-zerbitzuak izateko eskubidea dute, eta oinarrizko laguntza medikoa, aldez aurretiko zainketa eta haurren hilkortasun-tasa jaisteko neurriak azpimarratuko dira bereziki. Ama-esnea da gai kimiko gehien dituen produktuetako bat, eta hondakinak errausteko instalazioek igortzen dituzten dioxinak dira zientziak ezagutzen dituen gai toxikoenak. Zer iritzi duzu horretaz?
4. [27. artikulua] Haur guztiek dute beren garapenerako bizi maila egokia izateko eskubidea, eta gurasoen betebehar nagusia da eskubide hori bete dadin bizi-baldintzak bermatzea. Gurasoek betebehar hori bete dezaten neurriak hartu behar ditu estatuak, eta, hala behar izanez gero, mantenu-pentsioa ordainduko die. Espainian, kontsumitzen duguna eta baliabideak sortzeko dugun gaitasuna kontuan hartuta, gure herrialdea bezalako hiru beharko genituzke, biztanleriaren eskaerei erantzuteko. Kontsumitzen dugun moduak desberdintasuna eta pobrezia sortzen ditu pobretutako herrialdeetan. Uste duzu oro har artikulua errespetatzen dela?
5. [28. artikulua] Ume orok du hezkuntzarako eskubidea. Estatuak gutxienez derrigorrezko lehen irakaskuntza doakoa izatea bermatu behar du. Eskolako diziplina haurraren duintasuna errespetatuz aplikatuko da. Kongoko haurren % 30ek eskola utzi behar izaten dute, telefonia mugikorraren ekoizpenerako beharrezkoa den koltan bila meategietara joateko. Herrialde horretan eskubide hori errespetatzen dela uste duzu?

Bideoa: plantea ditzagun irtenbideak

Industria-ekoizpenaren sistema ulertu ondoren, egon daitezkeen aukerei buruz gogoeta egiteko proposatuko diegu ikasleei. Gaia kokatzeko, lagungarri izan daiteke La historia de las soluciones bideoa:

- Dokumentala, 9 min., Estatu Batuak, 2014.
- Errealizazioa: Storyofstuffproject
- Produkzioa: Storyofstuffproject
- Hizkuntza: JB ingelesez, gaztelaniazko azpitituluekin.



Laburpena

Soluzioen historia bideoak dio bidezkoagoa izango den ekonomia iraunkorrago baterantz jo dezakegula, helmuga berri baterantz bideratuz. Gehiago izatean datzan gaur egungo joeraren ikuspegitik, esaten zaigu gehiago kontsumitu behar dugula, errepide eta merkataritza-gune gehiago egin behar ditugula eta gauza gehiago erosi behar ditugula, nahiz eta gure osasun-adierazleek okerrera egin duten, diru-sarreren arteko desoreka gero eta handiagoa den eta poloetako izotz-geruza urtzen ari den. Jolasaren arauak aldatu egin behar dira... Ez al litzateke egoera hobetuko, gure ekonomiaren helburua gehiago izatea izan beharrean hobeto izatea izango balitz, hots, osasun hobea, enplegu hobeak eta planetan irauteko aukera hobea?

https://www.youtube.com/watch?v=mF9JhfzdHuU

Gogoetarako

- Nola lagun dezakegu aldatzen?
- Zer ekimen jar ditzakezu abian aztarna ekologikoa murrizteko?
- Zein erakunderekin lan egin zenezake?
- Gehiago birziklatu ahal izango zenuke?
- Eta berrerabili edo konpondu

DENBORALIZAZIOA

Bi tutoretza-saiotan egiteko pentsatuta dago jarduera hau. Lehenengo saioan, *La historia de las cosas* bideoa ikusiko da, ikasleak gaiaren inguruan murgiltzeko eta gelan debatea sortzeko. Bigarren saioan, *Soluzioen historia* bideoa ikusiko da, lan bat egingo da taldeka, eta, ondoren, bateratze-lana egingo da.

Duración total: 1h 30min

BATXILERGOA

Helburuak

- Etxebizitza eta elikadura izateko haurrek duten eskubidea ez dela mundu osoan betetzen jabetzea.
- Aberastasun gehiago izateko irrikak milaka familiaren eta haurren eskubideak zapaltzen dituela egiaztatzea.
- Gure kontsumitzeko moduak ingurunean eragina duela eta eragin horrek ondorio ekologiko eta sozial izugarriak dituela jabetzea.

Edukiak:

- Haurren eskubideak urratzea.
- Familiako nekazaritzatik nekazaritza intentsibora pasatzeak eragin negatiboa du ingurumenean, eta pertsona zaurgarrienei eragiten die, hau da, haurrei.
- Bizitzeko eskubidearen eta jabetza pribatua izateko eskubidearen arteko desoreka.

Jarduera

Gaiari sarrera egiteko, testu bat aurkeztuko da. Gogoeta egingo dugu Polochic-eko Haraneko (Guatemala) 800 familia nekazarik bizi duten egoerari buruz. Familia horiek beren lurretarik bota zituzten, lur horietan azukre-sail handi bat ezartzeko. Artikulu laburra da; irakasleak ozen irakur dezake, eta ikasleen artean lehenengo balioespena egin daiteke. Ondoren, “Desalojos en el Valle del Polochic” dokumentala ikustea proposatzen da. 31 minutu irauten du dokumentalak, eta, bertan, inplikatutako alderdi guztien lekukotasunak jasotzen dira. Azkenik, lau edo bost ikasleko taldeak egingo dira, planteatutako galderei erantzuteko. Emaitzak irakasleari emango zaizkio, eta bi edo hiru talderen lanak aukeratuko ditu hark, gelan aurkezteko.

TESTUA

2011ko martxoan, 769 familia nekazari eta indigena beren etxeetatik bota zituzten Polochic-eko Haranean (Guatemala). Haien lurrak erre zituzten, eta hiru nekazari hil ziren, Estatuko Segurtasun Kidegoek eta Utzaj enpresak erabili zuten indarkeriaren ondorioz.

Handik hiru urtera, familia haietako gehienak baldintza duingabeetan bizi dira, bizitzeko etxerik gabe eta lantzeko lurrik gabe. Euren etxeetatik bota zituztenean, ibaiertzean lurra landatzea erabaki zuten nekazariek, enpresa pribatuei saldu ezin zaizkien estatuko lurrak lantzea, hain zuzen. Hala ere, lehen etxetik bota zituen azukre-fabrika berak lur horiek suntsitu ditu, hango familiak alerik gabe eta, beraz, bizirik irauteko oinarrizkoa den ezer gabe utziz.

Une hartan, etxeetatik botatako jendeari beharrezko dituen elikadura, osasuna eta etxebizitza bermatzeko ezinbestekoak diren baliabideak emateko eskatu zion Giza Eskubideen Amerika Arteko Batzordeak Guatemalako gobernuari, baina urtebete baino gehiago igaro da, eta gobernuak ez ditu neurri horiek bete. Gaur egunera arte, Errepublikako presidenteak, Otto Pérez Molina jeneralak, zingira-lurrak soilik eskaini dizkie, eta ezinezkoa da lur horietan etxeak eraikitzea eta lantzea.

Bitartean, eguneroko errealitate bihurtu da gosea, beren lurretan artoa, babarrunak eta beste elikagai batzuk landatzen zituzten familia nekazari horientzat. Polochic-eko Haraneko nekazariek ez dituzte elikagai-poltsak edo ongarriak nahi. Belaunaldiz belaunaldi landu dituzten eta bizi izan diren lurrak itzul diezazkieten nahi dute soilik.

Polochic-eko Haranean gertatutakoa neurrigabeko okupazioaren adibide garbia da. Gero eta zabalduago dagoen joera horrek jendea etxebizitza uztera behartzen du, giza eskubideak bortxatzen ditu, eta lurra lantzetik bizi diren komunitateen bizimodua suntsitzen du.

"Lur-metaketa da Guatemalako eta Latinoamerikako hainbat herrialdetako desorekaren arrazoi nagusietako bat. Zerbitzu publikoetan (osasunean eta hezkuntzan, esaterako) egin beharreko inbertsioaz gain, lurra eskuragarri izatea oinarri-oinarrizkoa da pertsona pobreenen iraupena bermatzeko, muturreko desorekak zokoratzeko eta aberatsen eta pobreen arteko arrakala hori eteteko", azpimarratu du Guatemalan Oxfam-eko Luis Paiz zuzendariak.

Guatemalan mahaira heltzen diren elikagaien % 60 baino gehiago nekazaritza txikitik datozen elikagaiak badira ere, landan bizi diren emakumeek eta gizonek zailtasunak dituzte lursail txikiekin bizimodua aurrera ateratzeko, sektorean gutxi inbertitzen delako eta sustapen publikoa txikia delako. Emakumeen kasuan, are konplexuagoa da lurren jabe izatea, emakumeen % 6,9k baino ez dute lurra beren izenean.

Iturria: Intermón Oxfam

DOKUMENTALA

- Dokumentala, 30 min., Guatemala, 2011.
- Errealizazioa: Caracol Producciones
- Produkzioa: IDEAR-CONGCOOP eta Caracol Producciones
- Hizkuntzak: JB gaztelaniaz eta Q'eqchi' (gaztelaniazko azpituluekin). Azpituluak: ingelesez eta frantsesez. Bikoizketa: Maya Q'eqchi'.



Laburpena

Guatemala, 2011ko martxoa: soilik 4 egunean, militarren eta poliziaren operazio ikusgarri batek 12 lursail utz ditzaten lortu du; Polochic-eko Haranean izan da operazio hori, Panzós herrian, Alta Verapazen. Legeak eta indarrak bat egin dute Widmann familiaren alde. Widmann familia Ingenio Chabil Utzaj enpresaren jabea da, eta lur horien jabetza eskatu du, 800 familia q´eqchí´ baino gehiago ezer gabe kalean geldituko direla jakin arren. Kaleratze horien erregistroak in situ jasotzen ditu lan honek, bai eta giltzarri diren eragile batzuei egindako elkarrizketak ere, eta Guatemalako nekazaritzaren gaur egungo egoera ulertzen lagunduko digute guztiek, ohikoa den legez, han ere jabetza pribatuari lehentasuna ematen baitzaio, bizitzeko, lurra izateko eta elikadura izateko eskubidearen aurrean.

https://www.youtube.com/watch?v=SUfbH0kSVOs

GOGOETARAKO GALDERAK

Haur guztiek eskubide berak dituzte, non jaio diren kontuan hartu gabe. Zergatik ez dute haur guztiek eskubide horietaz gozatzen? Haurren eskubideen eguna ospatzen dugu gaur, eta aurten, egun honetan, gure kontsumoari buruzko gogoeta egin nahi dugu, ingurumena errespetatzen ez duten enpresa handiei erosten baitiegu sarritan.

1. Zergatik botatzen da jendea etxeetatik eta beren lurretatik zure ustez?
2. Zer interes dago Polochic-eko Harana aldatzeko eta azukre-kanabera sail handi bihurtzeko?
3. Zer eragin dute agroerregaien ekoizpenek familia nekazarietako haurrengan?
4. Polochic-eko haurrek etxebizitza izateko eta elikadura izateko duten eskubidea urratu egin dela uste duzu?
5. Zer da garrantzitsuagoa zuretzat: bizitzeko eskubidea edo jabetza pribatua izateko eskubidea?

DENBORALIZAZIOA

Bi tutoretza-saiotan egiteko pentsatuta dago jarduera hau. Lehenengo saioan, testua irakurri eta dokumentala ikusiko da, ikasleak gaiarekin harremanetan jartzeko. Bigarren saioan, taldean lan egingo da, eta bateratze-lana egingo da.

Iraupena, guztira: 1h 30min

MATERIAL OSAGARRIAK

Bloga: Un elefante en el salón

http://www.eldiario.es/oxfamintermon/elefante-salon-desalojo-Guatemala_6_126047397.html

Bloga: Es el poder de la gente

http://blogs.elpais.com/3500-millones/2013/04/es-el-poder-de-la-gente.html